



# IX. GAZTE EGUNA OSPATUKO DUTE ANOETAN

Belaunaldi berriari eta eskualdeko herritar guztiari atea zabalduko dizkie Gaztetxeak etzi, Txirrisklasaren laguntzaz >4

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2010-09-02**

VIII. URTEA 2.063. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Eskualdeko arraunlariak Kontxan elkartuko dira gaur sailkapen proban

**TOLOSALDEA** Getaria, San Pedro, Astillero, Zarautz eta Trintxerpen dabilta arraunean gure ordezkariak

**ITSASOA** 18:00etan hasiko den sailkapen proban 24 traineruk hartuko dute parte eta olatuak edukiko dituzte 6



Villabonako udaletxean ikurrina zapi beltzarekin zintzilikatu dute. I. GARCIA

## JOSUNE ARRETXE ZINEGOTZIA HIL DA

**AMASA-VILLABONA** Minbiziak eraman du 29 urteko gaztea; hileta elizkizunak gaur burutuko dira Amasako San Martin elizan, 19:00etan 2

## Taloaren eguna ospatuko dute igandean Leitzan

**KULTURA** Jaialdia 10:00etan hasiko da eta azokaz gain herri kirolak ere izango dira 7

**RACHID SALEM ABDRAHMAN** SAHARARRA

«Espainiak batez ere harreman ekonomikoak ditu Marokorekin»

**ELKARTASUNA** Uda gurean igaro duten haurtxoei agur esateko festa antolatu dute bihar Tolosan 3

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

## Josune Arretxe Amasa-Villabonako zinegotzia hil da

**Amasa-Villabona** » Gaur arratsaldean, 19:00etan, egingo dituzte hileta elizkizunak Amasako San Martin elizan.



Josune Arretxe Zugarramurdi. HITZA

### ERREDAKZIOA

Atzo hil zen Josune Arretxe Zugarramurdi gaztea, 29 urte zituela. Gaitzaren aurka urtebete inguru gogor borrokatu ostean, minbiziak eraman du Amasa-Villabonako zinegotzia eta Ezker Abertzaleko kidea.

2007ko udal hauteskundeetan ANV-EAEn zerrendetan aurkeztu ondoren, Josune Arretxe bigarren alkateorde kargua hartu zuen Udalean. Horretaz gain, bere arduren artean, Ingurugiroa eta mendiak eta Ongizatea eta emakumea sailak aurkitzen ziren.

Amasarren aldeko hileta elizkizunak gaur egingo dituzte Ama-

sako San Martin parrokiaren, 19:00etan.

Josune Arretxe Zugarramurdi gaztea utzi duen hutsunea eta samina agerikoa da Amasa-Villabonako udalaren. Bertan ikurrina aurkitzen da zintzilik, zapi beltz bat daramala.

## Gutunak

### Udalaren oharra

Idatzi honen bidez Villabonako Ezker Abertzaleko Udal korporazioak jakitera eman nahi du, Villabonako Udalean Ezker Abertzalearen ordezkaria izan den Josune Arretxe Zugarramurdi zinegotzia (Alkate orde) Amasako bere

etxean hil dela, irailaren 1ean.

Beste behin, bihotza minez utzi digun mezua jaso dugu Villabonako Ezker Abertzaleko ordezkariok. Urtebeteren buruan Udal korporazioko bi kide galdu ditugu, Ezker Abertzalearen ekarpen politikoa zeresan handia zuten biek. Villabonako Udalean Ezker

Abertzalearen korporazioa osatzen dugun kideok, doluminak agertu nahi dizkiogu, Josuneren senar, Aritzi, bai eta bere guraso Ixiar eta Jesus eta bere anai Arkaitz eta Mikeli. Une gogor eta latz hauetan Villabonako Ezker Abertzalea osatzen dugun gizon eta emakume guztiok Arretxe Zugarramurdi familiaren ondo ondoan gaude.

Josunek, Amasa eta Villabonaren eremuan, nahiz Euskal Herriaren askatasunaren alde erakutsi duen eskuzabaltasunak ez du mugarik izan. Bere osanarekin borroka luzea egin du azken urte honetan. Emakume zoragarria inolako ezbairik gabe, ohore izugarria haren alboan politika egitea. Bere azken hitzak, publikoan, uztailearen 31n egin zituen Remi Ayestaran defintzeko 15 hitzekin, billabonatar guztiak malkotan utzi gintuen.

Ez adiorik Josune!

Maita zaituztegu!

**Villabonako Udala,  
Ezker Abertzaleko  
korporazio kideak.**



Udaltxean ikurrina zinta beltzarekin aurkitzen da. I. GARCIA

## Zeberio II.ak izarren arteko partida jokatu du gaur Galarretan

**Erremontea** » 16:00etan hasiko den pilota jaialdian, elduindarrarekin batera Gaztelu ere irtengo da lehen partidaren kantxara.

### ERREDAKZIOA

Hernaniko Galarreta pilotalekuan erremonte partidak jokatu du gaur. Ohi bezala, ostegunetako jaialdian lau lehia ikusteko aukera egongo da.

### Jaialdia 16:00etan hasiko da

Lehen partidaren eskualdeko pilotari bat irtengo da kantxara, Gaztelu hain zuzen ere. Ikuskizun polit bat eskaintzeko asmoz, Urrutia II-Gaztelu bikoteak, Oñat-Zubizarreta edukiko dituzte aurkari be-

zala. 35 tanto egiten dituen bikoteak irabaziko du norgehiagoka.

Bigarren partida izango da jaialdiko estelarra. Goi mailako pilotarien artean, Zeberio II.a izango da gure ordezkaria. Elduindarrak Badiolarekin osatuko du bikotea. Aurkariak ez dira xamurrak izango, joko gainezka dabilen Urrutia I.a hor egongo baita, Urtasunekin batera. Partida 40 tantora jokatu ko da.

Hirugarren lehia Etxeberria IV-Etxeberria IIIk eta Uterga-Jonek jokatu dute. Jaialdia berri, ondorengo lau pilotari hauek itxiko dute: Zulaika-Olazarrek eta Etxabe II-Aizpuru II.ak.

Oriamendi enpresatik pilotazale guztiak gonbidatu dituzte Hernaniko Galarretan jokatu den jaialdira.

## Ibarrako Bartoloetako balantzzea egiteko deia

### ERREDAKZIOA

Jaiak amaitu ondoren balantzzea egiteko ohitura dago. Ibarran irailaren 6an, astelehenean, 21:30ean Gaztetxean elkartuko dira helburu horrekin.

Bertara herritar guztiak deitu dituzte Bartolaren jai batzordeko kideek: «Aurtengo jaietan ongi edo gaizki zer joan den aztertzeko eta hurrengo urtearen inguruan eztabaidatzeko amoz».

**AUKERA HANDIA ETA GUZTIA**

# Kalitatezkoa

**EDARIK**

**ELIKAGAIK**

**JANTZIAK**

**DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...**

**ESKULANCIATZA**

**400**

**SARTU ETA EROSI GUREAN**

**www.euskalherriko PLaza.com**

## Laburrak

### Udaberri taldekoen haur ikastaroetan izen-ematea

**KULTURA** • Udako oporraldia amaitzearekin batera, ate joka da ikasturte berria. Udaberri dantza taldekoak ere hastear dira ikastaroekin, eta hauei izena emateko aukerak zabaldu dituzte. Haur ikastaroetan izena emateko aukera izango da datorren asteoste-gunean eta ostiralean, hau da, hilaren 9an eta 10ean, 17:00etatik 20:00etara Tolosako Kultur Etxean. Entseguen irailaren hirugarren astean hasiko dira, irailaren 17an eta 18an, eta taldeen zerrendak eta ordutegiak [www.udaberri.com](http://www.udaberri.com) web orrian jarriko dituzte ikusgai prest izan bezain pronto.

### Irailerako zine bonuak salgai igandetik aurrera

**ZINEMA** • Abuztuko geldialdia eta gero, hilabete honetatik aurrera ohiko zine saioak prestatuko dituzte Leidor aretoa. *Origen, A proposito de Elly, Un sueño posible, Vincer, Un día que Dios se fue de viaje, Yo soy el amor, Tu y yo, London river* eta *Sunshine cleaning* filmak izango dira ikusgai irailaren helduentzat. Gaztetxoentzat, berriaz, *Shrek, El aprendizaje de brujo* eta *Como perros y gatos* izango dira aukeran. Orain arte bezala, bonuen aukera jarri dute, horrela prezio baxuagoan filmak ikusi ahal izateko. Bonuak hilaren 5etik 13ra bitarte izango dira salgai, 10 euroren truke. Igandea 17:00etatik 19:00etara izango da bonuak eskuratzeko ordutegi berezia.

### Tolosa CFn parte hartzeko aukera zabalik dago

**KIROLA** • Tolosa CFk ikasturte berriko izen-ematea zabaldu du. Infantilek (1997-98) astelehen, asteazken eta ostiralean 17:30etik 19:00etara agertu beharko dute; alebinek (1999-2000) astelehen eta asteazkenetan 17:30etik 18:30era, hilaren 6tik aurrera; benjaminen (2001-02) eta pre-benjaminen (2003-04) ostiralean 17:30etik 18:30era, bihurtik aurrera. Deialdia atletismoa praktikatu nahi duten gazte guztiei irekia dagoela adierazi dute kirol elkartetik.

# Saharar festa bihar Zerkausion

**Elkartasuna** » Uda gurean igaro duten saharar gaztetxoek agur esateko ekitaldiz beteriko festa izango da 17:00etan hasita.

### INIGO TERRADILLOS

Bi hilabete gure artean igaro ostean, saharar gaztetxoek iritsi zaie Algeriako Tinduf hiriarren ondoan kokaturiko errefuxiatuen kanpalekuetara itzultzeko garaia. Aurretik, ordea, euren zuzendutako festa antolatu du Tolosaldea Sahararekin elkarteak bihar. Zerkausiak hartuko du agur festa 17:00etatik aurrera, eta gauera arte jokoak, ekitaldi politikoa, saharar afari ohi-koa eta kontzertuaz gozatu ahal da.

Oporrak Bakean ekimenaren baitan uztaileko bigarren astean iritsi ziren eskualdera 19 haur sahararrek eta datorren ostegunean hartuko dute euren etxeetarako hegazkina. Familia hartzaileekin uda berezia igaro dute eta ekintza ugariz gozatzeko aukera izan dute. Horretaz gain, udan euren lurren egiten duen bero handia ekidin ahal izan dute, mediku azterketak egin dizkiete eta ohi baino elikadura anitzagoaz baliatu ahal izan dira.

Uda primeran igaro duten arren, guztien ametsa horrelakoek beharrik ez izatea litzateke, 35 urte baino gehiago luzatu den gatazkarerkin amaitu eta behingogatik euren benetako lurretara itzuli direnaren seinale bailitzateke.

### » EGITARAUA

- **17:00.** Haurtzako jokoak Zerkausion.
- **19:00.** Ekitaldi politikoa Fronte Polisarioeko eta Tolosaldea Sahararekin elkartero arduradunekin eta Tolosaldeko ordezkarri politikoenkin.
- **Ondoren.** Dultzaineroak.
- **20:30.** Saharar afaria: kus-kusa, datilak eta haragi pintxoak, postrea eta tea.
- **22:00.** Estrella Polisaria taldea.
- **Izen-ematea.** Afarian nahi duen orok parte hartu ahal du. Txartelak 6 euroren truke eskura daitezke 654 40 72 00 zenbakira deituta.



Ekintza ugari antolatu dituzte saharar gaztetxoentzat. Irudian, Realaren estadioa bisitatu zutenekoak. HITZA

## «Atzerritarrek jo dituzte estreinakoz»

**RACHID SALEM ABDRAHMAN** » Sahararra

**Politika** » Marokoar polizia Sahararen aldeko 14 ekintzaile kanariar jipoitu dituzte manifestazio batean parte hartzeagatik.



Mendealdeko Sahararen kaleak tapatutako pintaketaz beteak. HITZA

### I. TERRADILLOS

Pasa den astean Sahararen eta Marokoren arteko gatazkaz ohi baino gehiago aritu ziren komunikabideak. Kanarietako 14 herritar Mendealdeko Saharako hiriburura, Aaiunera, joan ziren eta han Sahararen independentzia aldarrikatzeko manifestazio batean hartu zuten parte, saharar banderak eskuetan zituztela. Azaldu zutenaren arabera, marokoar polizia euren gerturatu eta jipoitu egin zituzten. Rachid Salem Abdrhman Tolosan bizi den sahararrek dioenez, «horrelako egoerak maiz errepikatzen dira Mendealdeko Sahararan».

**Tamalez, horrelako albisteak entzuterako ohituta zaudete.**

Bai, Sahararen independentziaren aldeko edozein ekintza eginez gero horrelako zerbait gertatzeko arriskua dago han. Manifestazio-

ren batean parte hartzeagatik edota saharar bandera ateratzeagatik jipoitzen zaitu polizia edota karantzelara eramane. Gainera, horrelako ekintzaren batean zauritu direnak ez dituzte artatu nahi izaten ospitaleetan. Dena den, lehenaldia da atzerritar batzuren gaita jo dutena.

**Maiz antolatzen al dira horrelako ekintzak?**

Bai, baina ez dute gehiegi irauten eta jende asko ez dagoenean egiten dira, bestela segituan etortzen baita polizia. Pintaketak eta ere egiten dira, baina hurrengo egunera ko guztiak ezabatzen dituzte.

**Espainiako Gobernuak honi guztiari emandako erantzunaz zer diozu?**

Espainiak harremanak ditu Marokorekin, batez ere ekonomikoak, eta horiek lehenesten ditu une honetan, beraz, ezin dugu ezer espero euren gaindik.

**Galdera hauek erantzute hutsarengatik arazoak izan al ditzakezu?**

Bai, noski. Marokok Sahararen aldeko ekintza guztiak zigortzen ditu. Baina, mundu guztian zehar gure egoeraren berri izan dezaten horrelakoak egiten jarraitu beharra dugu.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Iragarkia

2010eko uztailaren 29ko Alkatezaren Erabakikuntzak. Irurako Hirigintza Planeamenduzko Arau Subsidiarioetako, 10 Eremua (Larriturri), Iturbe Sendiak sustatutako Xehetasunezko Azterketaren onartzea erabaki zuen. Hori dela eta, expediente jendaurrean jartzen da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita 20 laneguneko epean.

Irura, 2010eko abuztuaren 30a.  
Marimi Ugalde Zabala, Alkate-Lehendakaria



## IRURAKO IKASTOLA KOOP. ELKARTEAK

Langile bat behar du 10-11 ikasturterako

- Hezkuntza laguntzako espezialista jardun osorako

Curriculumak e-mailez bidali behar dira

[irura@ikastola.net](mailto:irura@ikastola.net)

Jasoko diren azken eguna: irailak 5a



'Printzesa Txikia' antzezlanaren entseguko une batean ateratako argazkia. HITZA

## Larunbatean IX. Gazte Eguna ospatuko dute

**Anoeta** » Gosariarekin hasiko dute eguna. Antzerkia egiteko ohitura galdua zuten eta aurten berriz egingo dute.

### ERREDAKZIOA

Larunbatean, hilak 4, Anoetako Gaztetxean, IX. Gazte Eguna ospatuko dute. Urteroko ohiturari jarraituz, Anoetako gazteek, Gazte Eguna antolatuko dute eta guztia prest dago larunbaterako. Egun guztian zehar hainbat ekitaldi izango dira gaztetxean bertan.

Besteak beste, ekimen honen helburua, «herriko gazteak biltzeaz gain, belaunaldi berriei ongi etorria ematea izaten da. Honela, gaztetxean parte har dezaten animatuz eta herria astinduz jarrai dezaten» diote antolatzaileek.

Horretarako, egitarau oparora prestatu dute eta goizeko 10:00etan gosariarekin hasiko dute eguna. Ekitaldien artean, herriko gazteen eskutik antzerki emanaldia izango da. «Zenbait ur-

tez ohitura hau galdua genuen eta aurten, belaunaldi berri eta zaharren arteko lanaren ondorioz, berreskuratuko dugun» gaineratu dute.

### Egun osoko festa

Gazte eguna 10:00etan hasiko dute eta lehenik eta behin gosari ederra egingo dute eguna bikain hasteko. 11:00etan, Asanblada eta belaunaldi berriari ongi etorria egingo diote. Behin harrera egin-

### » IX. GAZTE EGUNA

#### Irailak 4, larunbata

- **10:00.** Gosaria.
- **11:00.** Asanblada eta belaunaldi berriari ongi etorria egingo diote gaztetxean bertan.
- **12:00.** Sagardo dastaketa.
- **14:00.** Paella jatea.
- **18:00.** Poteo animatua.
- **21:00.** Aferia.
- **22:30.** Gazte antzerkia: *Printzesa Txikia*.
- **23:30.** Kontzertua: Egurra ta kitto eta Ingo al deu? taldeak izango dira. Gau guztian zehar Txirriklaskas banatuko da.

da, 12:00etan, Sagardo dastaketa izango da. Edanak kalterik ez egiteko, 14:00etan bazkaria egingo dute paella janz. 50 lagun inguru elkartzeko dira.

18:00etan, poteo animatua egingo dute herriko kaleetan barrena «baina batzuk jai giroan dabiltzan bitartean, besteak gaztetxean gelditzen gara, gaueko antzerkirako dena prest uzten. Teloia eta musika ekipoa jarri eta azken entsegurokorra egiten dugun» diote antolatzaileek. 21:00etan, mahaiaren bueltan afaletzeko eseriko dira. 22:30ean, *Printzesa Txikia* gazte antzerkia ikusteko aukera izango da eta adin guztietako jendeari zuzendua dago. Gazteen esanetan, «antzerkian bertan, musika uzartuko da, olerki eta bakarrikzketak baten batera». Gaztetxeak duen terrazan egiten dute antzezlan.

23:30ean, kontzertuak izango dira: Egurra ta kitto eta Ingo al deu? taldeak izango dira. Gau guztian zehar Txirriklaskas banatuko da. Eta «guztiok gonbidatuta zaudete Anoetako gaztetxera, gurekin egun honetaz gozatzera» diote.

## Hilaren 24a bitarte ikastaroetan izen emateko aukera dago

**Zizurkil** » Haur, heldu eta jubilatuentzako ikastaroak dira. Urriko lehen astean hasiko dira eta ekainaren erdira bitarte iraungo dute.

### ERREDAKZIOA

Ikasturte honetarako ikastaroak Zizurkilgo Udalak prest ditu. Dagoeneko zabalik dago izen emateko epea eta hilaren 24an amaituko da. Ikastaroak urriko lehen astean hasiko dira eta ekainaren erdira bitarte luzatuko dira.

Izena, Aurrera Plazako Udal Bulegoetan eman beharko da. Hori bai, izena ematerakoan ikastaroaren ordainketa egin beharko da edo Udaleko kontu korrontean ordainketa egin denaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Izen emate orria betetzea derrigorrezkoa izango da. Izena eman ostean baxa eman nahi izanez gero, urriaren 22a baino lehen egin beharko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 69 24 95 telefonora deituz eskura daiteke.

**Haur, heldu eta jubilatuentzat**  
Haurrek bi aukera dituzte: marrazketa astelehenetan izango litzateke 18:00etatik 19:00etara eta 30 euro ordaindu beharko da. Euskal dantza berriz, asteazkenetan izango litzateke eta 50 euroko kostua izango du. Orduetgia, 17:15etik 18:15era izango litzateke.

Helduen kasuan aukera zabala dago: eskulanak eta pintura, asteartean eta Patchwork, asteazkenetan izango dira 18:00etatik 20:00etara. Bien kasuan 70 euro ordaindu beharko da. Yoga, astelehen eta asteazkenetan izango da 18:30etik 20:00etara. Kostua, 105 eurokoa da. Pilatesaiaok, 125 euro ordainduta, astelehen eta ostegunetan 18:30etik 19:30era izango dira.

Jubilatuena kasuan, izen emate eta prezioak, Elizpe Jubilatuei Elkartean daude. Gimnasia, astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 11:00etara izango da. Joskintza eta eskulanak, ostegunetan izango dira 16:00etatik 18:00etara eta yoga, astearte eta ostegunetan, 11:00etatik 12:30era.

## Laburrak

### Txekorraren zozketako zenbakia 2.200 izan da

**AMEZKETA** » Amezetaketa San Bartolome jaietan, urtero bezala, Guraso Elkarteak, txekorra zozketatu du. Abuztuaren 25ean egin zen zozketa eta aurtengo zenbaki sari-tua, 2.200 izan da. Oraindik ez da agertu zenbaki saritua duen inor eta hilaren 8a, asteazkena, baino lehen ez bada agertzen, berriro egingo dute zozketa.

### Haurrei zuzenduriko ikastaroen bilera

**ALKIZA** » Hilaren 6an, astelehena, 17:00etan Alkizako liburutegian egingo dute bilera. 2010/2011 ikasturtean haurrei zuzenduriko ikastaroak izango da gaia.

### Udal Musika Eskolan izena eman daiteke

**TOLOSA** » Eduardo Mocoeroa, Tolosako Udal Musika Eskolak, prest du ikasturte berria. Klaseak irailaren 6an, astelehenean, hasiko dira. Era berean, oraindik ikasleentzako lekua gelditzen da. Hori dela eta, matrikula egin nahi duenarentzako epea zabalik dago. Bulegoko ordutegia, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara da.

### Pasabanen erakusketa arratsaldetan zabalik

**TOLOSA** » Eudurne Pasabanen erakusketa arratsaldetan bisitatu daiteke Aranburu Jauregian. Hilaren 12a bitarte egongo da ikusgai 17:00etatik 20:00etara.

argazki lehiaketa

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!**

**NORA BIDALI?**

argazkiak@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora  
Irailak 30 arte

**HITZA** udarako argazki lehiaketa

**1. Saria**  
Eako Andutza pertsonentzako

**2. Saria**  
Getariako Gure Argazki Lehiaketa bi pertsonentzako gau bat pasatzeko

**3. Saria**  
Gorrotxategi Gure Argazki Lehiaketa bi pertsonentzako

parte-hartzaile eta bost argazkiak  
TZako materiala er

# Lehen argazkiak iritsi dira

## XII. HITZA Argazki Lehiaketa »

Argazkiak bidaltzeko epea irailaren 30ean amaituko da.

### ERREDAKZIOA

Udako oporretan ateratako lehen argazkiak iritsi dira TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren erredakziora. Lehiaketan parte hartzeko ordea, oraindik egun ugari gelditzen dira aurretik, epea hilaren 30ean amaituko baita.

Argazkiak bidaltzeko bi aukera

daude: [argazkiak@tolosaldeko-hitza.info](mailto:argazkiak@tolosaldeko-hitza.info) helbide elektronikora igorri edo Hitzaren egoitzara ekarri, hau da, Tolosako Araba Etorbidea 5 behean helbidean aurkeztuz.


Lehen hiru bozkatuenek sari ederrak lortuko dituztela esan beharrik ez dago.



Uda honetan, familiarekin Asturias aldean igaro ditut oporrak. Hara joanda, bisitatu gabe ezin utzi Covadongako lakua. Eguraldi bikaina egin zigun, eta bertako paisaiak gozatzeko aukera izan genuen. EDURNE EZEIZA



Marokoko Essaouira herritik gertu dagoen hondartza bat da argazkian ikus daitekeena. Surfa egiteko hondartza aproposa da, eta mundu guztitik joaten da horretara jendea bertara. Ikusle bereziak dituzte surfariak han, lasai-lasai hondartzan paseatzen ari diren gameluak. GORKA ALTUNA



Lehen egunean Uzturre mendi inguruan, tximeleta polit hau lore arroxaren gainean ikusi eta argazkia ateratzea erabaki nuen. Ea gustatzen zaizuen.

AGURTZANE ALKAJAGA.



Asturiasko Potes herrian izan gara uda honetan. Bertan, mendiaz eta naturaz gozatzeko aukera izan dugu. Herriaren inguruko landetan aurkitu genituen zaldi hauek, jolasean. JON LARRARTE (TOLOSA)

**Irudikatu mundua BERRIArekin**



Egin harpidedun eta jaso ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.



**Ezaugarriak:**

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa
- Irudiaren berresoluzio ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8, argazkiak handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.



**Ezaugarriak:**  
samsung LE 32C450

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, eta DNIe+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztien lotzeko.

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIAren harpidedunen artean, Elektraren eskutik.



[www.elektregalluak.com](http://www.elektregalluak.com)

Harremanetarako: 943-30 43 45 • [harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)    aukeraezazu.[bizieuskaraz.berria](http://bizieuskaraz.berria)

# Eskualdeak ere izango du bere presentzia Kontxako Banderako sailkapen proban

**Arrauna** » Getaria, San Pedro, Astillero, Zarautz eta Trintxerpeko taldeetan ari dira egun eskualdeko zenbait arraunlari.

## IMANOL GARCIA

Arraunaren bandera preziatuena lortzeko gaur 18:00etan ekingo diote 24 traineruk sailkapen probari Donostiako Kontxako Badian. Tolosaldeak itsasorik ez badu ere, eskualdeko hainbat arraunlari daude zenbait klubetan eta horietako batzuk parte hartuko dute Banderaren lehian.

Getariako arraun elkartearen Haritz Pagola, Iñigo Alustiza eta Miguel Anjel Ezeiza tolosarrak, eta Berobiko Jon Alduntzin eta Jose Luis Zabala aritzen dira. San Pedroko traineruan Jon Ander Agi-

erre tolosarra aritzen da. Astilleron Ugaitz Mendizabal anoetarra bigarren patroiz bezala eta Anjel Larrañaga tolosarra bigarren entrenatzaile bezala aritzen dira. Zarautzen Elduako Iñaki Nazabalek parte hartzen du. Trintxerpen Mikel Larburu berastegiarrak eta Xabier Zabala adunarrak aritzen dira. Arraunlari horietatik batzuk ordezko bezala aritzen direnez, baliteke ez parte hartzea Kontxako Banderan.

Horiez gain hainbat arraunlarik parte hartzen dute zenbait klubetako bigarren taldeetan: Anjel Etxedona (Tolosa) eta Iban Ramos (Ibarra) San Pedro B-n, Asier Olea (Tolosa) Zarautz B-n, eta Iñigo Jauregi (Tolosa), Jon Etxeberria (Gaztelu), Endika Lopez (Tolosa) eta Jon Lizarralde (Tolosa) Orío B-n. Hauek, noski, ez dute parte hartuko gaurko proban.

## Itsasoak erabaki dezake

Anjel Larrañaga Astilleroko bigarren entrenatzaileak azaltzen duenez, «garestia izango da sailkapena. Gu Ligan seigarren goaz, baina talde indartsuena atera genuen Zarautzen eta hiru-bost aurrenekoetan ibili ginen. Bihar [gaur] talde hori aterako dugu».

Ezustekoa egon daiteke gaurkoan: «Dagoen berdintasuna ikusita, maniobra txar bat edo olatu bat hartzea edo ez hartzea bost-sei segundoko izan daiteke eta horrek erabaki dezake postu bat gora edo behera. Aurten ere segundoko gutxitan traineru asko sartuko dira», dio Larrañagak. Itsasoak zeresana izango du estropadan: «Denok egongo gara barrualdera olatu onak izateko esperantzarekin. Itsaso pixka bat izango da eta haizea ere bai. Olatuak izango dira gakoetako bat».



Astillero (goian), San Pedro (erdian) eta Zarautz (azpian) San Miguel Ligan aritzen dira. SAN MIGUEL LIGA

www.euskalherriko  
**plaza.com**



Lehen: 31,53 €  
Orain: 25,22 €

Lehen: 19,83 €  
Orain: 15,86 €

Lehen: 66,12 €  
Orain: 52,9 €

**skunkfunk** %20

**%20**

Lehen: 28,48 €  
Orain: 22,78 €

Lehen: 57,17 €  
Orain: 45,74 €

Lehen: 28,48 €  
Orain: 22,78 €

**kot**

20 €

20 €

20 €

**TTAK**

2 elastiko  
**35 €**

## Laburrak

### Bihar, zaborbilketaren tasa ordaintzeko azken eguna

**IKAZTEGIETA** • 2010eko lehenengo sei hilabeteko zaborbilketa tasari dagozkion erreziiboak ordaintzeko azken eguna bihar izango da. Helbideratuta dauden erreziiboak ere bihar bertan kobratuko dira. Egun horretan ordaindu ez diren erreziiboak eta bankuak bueltatzen dituenak, errekariguarekin eta berandutze interesekin kobratuko dira.

### Aerobik ikastaroan izena emateko aukera zabalik

**IKAZTEGIETA** • Hilaren 6tik aurrera aerobik ikastaro bat izango da kiroldegian. Astelehen eta asteazkenetan 19:00etatik 20:00etara eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara izango dira saioak. Ikastaroan parte hartu nahi duenak izena eman behar du eta horretarako udaletxera edo kiroldegira jo behar du. Bihar da azken eguna izena emateko.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zerbitzaria.** Amezketako jatetxe batek zerbitzaria behar du asteburuetan lan egiteko. Interesatuak deitu 605 72 77 30 telefono zenbakira.

### GALDUTAKOAK

■ **Giltzak.** San Lorentzo jaiki ospatutako egunetan, hiru giltza aurkitu dira ikaztegietan. Giltzak udaltxean daude eta bertara joan daiteke galdu dituenak.

# Euskal tradizioan oinarrizko jaki izan den taloa, protagonista Leitzan

**Aisia** » Taloaren eguna ospatuko dute beste behin ere; igande goizean, azoka, erakustaldiak, lehiaketa eta herri kirolak izango dira.

## ERREDAKZIOA

Ura, arta irina eta gatza osagarri dituen taloa, Euskal Herriko tradizioan, elikaduraren oinarri izan da urte askotan. Gaur egun berriz, azoka berezietan, jaietan, eta ekitaldi puntualetan bakarrik dastatzen den gutizia da. Leitzan duela urte batzuk hasi ziren jaki preziatu honi omen egiten, eta aurtan, beste behin ere, Taloaren Eguna ospatuko dute.

Igandean, hilak 5, taloa izango da protagonista Leitzan. Plazaola-ko Partzuergo Turistikoak Leitzan

**10:00etan zabalduko ditu ateak taloa oinarri duen festak; hainbat ekitaldi izango dira plazan**

ko Udalarekin elkarlanean antolatuta, eta Nafarroako Gobernuako Turismo eta Kultur departamentuaren laguntzaz hainbat ekitaldi izango dira egun guztian zehar. Bertara hurbiltzen direnek inguruko gastronomiaz, ohiturez eta herri kirolez gozatzeko aukera izango du.

Aurtan ere, tradizioarekin jarraitzeko, Villabona eta Saralegi izango dira Merkatua irekiko dutenak, eta horien ondoren mota guztietako ekintzak ospatuko dira, euskal tradizioko jakia oinarri duen plateren esposizioa, zonaldeko artisauen postuak, taloa egiteko eta baserri tresneriaren erakusketa.

Bisitariak era aktiboan parte hartzeko ekintzak ere egongo dira,



Baserriko animalien erakusketa nahiz baserri tresneriarena izango dira igande goizean, Leitzako plazan. S. GOMEZ

txikientzako taloa egiten ikasteko tailerra, gurdi ibilaldiak edo baserriko animalien erakusketa. Guzti horretaz gain, 100 euroko, 50 euroko eta 25 euroko sariak irabazteko aukera ere egongo da Eskualdeko Talo Lehiaketan. Gainera, egun berean eta doanik izena eman ahal izango da

## Herri kirolen hitzordu garrantzitsua

Azoka, tailer eta talo lehiaketaz gain, herri kirolen arloan, bi txapelketa jokatuko dira 12:00etatik aurrera. Alde batetik, Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa izango da jokoan. Bertan, Eneko Saralegi (Leitza), Eneko Otaño (Gipuzkoa), Eloy Corchero (Araba) eta Gaizka Lopez (Araba) ariko dira lehian. 45 ontzako eta bi kana-

## » TALOAREN EGUNA

### Irailak 5, igandea

■ **10:00.** Merkatuaren irekiera: Leitzako Talo egile (Villabona eta Saralegi) eta artisauak arduratuko dira honetaz. Taloa egiteko eta baserri tresneriaren erakusketa izango dira. Baita, baserriko animalien erakusketa eta haurrentzat gurdi ibilaldiak ere.  
■ **11:00etatik 13:30era.** Ekintza gastronomikoak izango dira. Eskualdeko Talo lehiaketa jokatu da: lehenengo hiru sailkatuentzat

erdiko enbor moztu beharko dituzte parte hartzaileek.

Bestetik, Nafarroako Gizonezkoen Txinga Txapelketa ere ikusteko aukera izango da. Miguel Angel Sukuntza (Leitza), Imanol

sariak banatuko dira kirolak bukatu ondoren. Taloarekin egindako plateren erakusketa, zonaldeko jabetxe eta tabernekin egindakoak: Musunzar, Peritza, Txoko, Elostia eta Lekuonberri ostatuak. Baita, taloak egiteko tailerrak, 4 eta 14 urte bitartekoentzat.

■ **12:00.** Herri kirol erakustaldiak. Euskal Herriko Aizkolari Gazteen txapelketa eta Nafarroako gizonezkoen Txinga-Erute Txapelketa jokatu dira.

Martin (Berriozar) eta Simon Tomas (Metauten) ariko dira nor baino nor. Hauek, 50 kiloko txingekin ahalik eta plaza gehien egiten saiatu beharko dute. Plaza bakoitzak 28 metroko luzera izango du.

## Eliza ataria berritu eta urbanizazio lanak egingo dituzte

**Belauntza** » Landagipuzkoa 32 planaren baitan eskualdeko herrian bi proiektu bultzatuko ditu Foru Aldundiak.

## ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Dituatuen Kontseiluak Altzaga eta Belauntzako udal inbertsioen planak onartu ditu Landagipuzkoa 32 programako udal azpiegitura baliarizatuak eraikitzeko.

Belauntzako udalerrian Landagipuzkoa 32 programak bi proiektu bultzatuko ditu oraingoan, eliza ataria eta ingurunea urbanizatzea eta hirigunetik goiko etxeetara doan ibilbidea (goiko etxeen urbanizazioa).

Belauntzan gauzatu diren bi proiektu hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko duen dirulaguntza denera 260.611 eurokoa izango da.


Eliza ataria eta ingurunea urbanizatzeari dagokionean, Etxaburu eta errepidea, nahiz eliza eta aparkalekua arteko zonaldeak urbanizatzea da asmoa. Herri gunean dauden bi zonalde dira, eta lehena urbanizatu gabe dago eta bigarrena konpondu egin behar da oinezkoentzako ondo egokitzea.

Obra honen inbertsioa 252.000 eurokoa da eta Foru Aldundiaren laguntza 218.611 eurotako izango da.

Bestalde, hirigunetik goiko etxeetara doan ibilbideari dagokionean (goiko etxeen urbanizazioa), oinezkoentzako ibilbidea egin nahi dute goian dauden etxeetatik hirigunera, eta etxe hauen aurretik dagoena urbanizatu nahi da. Urbanizazio lan honek 55.754 euroko aurrekontua du eta Foru Aldunditik 42.000 euroko dirulaguntza jasoko dute.

## H Hilberria

**JOSUNE ARRETXE ZUGARRAMURDI**



Josune, zure borroka eta bizinaria eredu izan ditugu. Aritz, segi eredu horri, eta animo! Ez haugu bakarrik utziko.

AMASA  
2010eko irailaren 2a

Aritzen lagunak

**JOSUNE ARRETXE ZUGARRAMURDI**



Urak dakarrena Urak darama Zuk emandakoa Gurekin gelditzen da.

AMASA  
2010eko irailaren 2a

Etxekoak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



GOIZA	EGUZKIA
ARRATS.	EGUZKIA
BEROENA	22°
HOTZENA	14°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Aiora Agirretxe Arozena (Altsasu).** Gaur 2 urte. Muxu haundi bat familiaren eta aiton-amonen partetik.



### Zorionak!

**Jokin Martin Kortajarena (Zizurkil).** Gaur 10 urte. Muxu haundi bat familiaren partetik. Ondo pasa morenazo!

## agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

## A Agenda

### Deialdiak

- **Tolosa.** Alebinen hondartza futbola Euskal Herria plazan.
- **Irura.** Ehiza elkarteoen bilera Gazte Alaiak elkartearen 19:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



### Zorionak!

**Haimar (Lizartza).** Urte askoan aitaxo! Eutsi goiari eta ez ahaztu izugarri maite zaitugula!



### Zorionak!

**Haimar Altuna.** Lizartzako Ezker Abertzalearen partetik. Festetan ere gurekin zaudete.



Garenaren harrotasunetik geroa geure eginez.  
Osasuna, maitasuna ta askatasuna.  
Gari, Nagore ta Onditz.



### Zorionak!

Ametsak ezingo dituzte giltzapetu!